

ITZULPENA¹

Araua: EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 357/2009/EE ERABAKIA, 2009ko apirilaren 22koa, estatu kideek garraioen sektorerako aurreikusitako lege-, erregelamendu- eta administrazio-xedapen batzuetarako aldez aurretiko azterketa- eta kontsulta-prozedurari dagokiona.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «DECISIÓN N° 357/2009/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 22 de abril de 2009, relativa a un procedimiento de examen y consulta previos para determinadas disposiciones legales, reglamentarias o administrativas previstas por los Estados miembros en el sector de los transportes» (*Diario Oficial de la Unión Europea*, L 109/37 de 30/4/2009)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA KONTSEILUAK
BATERA HARTUTAKO ERABAKIAK

EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 357/2009/EE ERABAKIA
2009ko apirilaren 22koa,
estatu kideek garraioen sektorerako aurreikusitako lege-, erregelamendu- eta administrazio-xedapen
batzuetarako aldez aurretiko azterketa- eta kontsulta-prozedurari dagokiona

(Bertsio kodetua)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa Eratzeko Trataturia eta, bereziki, haren 71. artikuluko 1. paragrafoa aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute [1],

Eskualdeetako Komiteari aurrez kontsulta egin zaio,

Tratatuko 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraitu diote [2],

Alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

(1) Kontseiluaren 1962ko martxoaren 21eko Erabakia, estatu kideek garraioen sektorerako aurreikusitako lege-, erregelamendu- eta administrazio-xedapen batzuetarako aldez aurretiko azterketa- eta kontsulta-prozedura ezarri zuena [3], asko aldatu da [4], eta haren irakurketa egungoa baino arrazionalagoa eta argiagoa izango bada, hura kodetzea komeni da.

(2) Tratatuaren helburuak garraio-politika bateratu baten esparruan lortzeko, komeni da estatu kideek garraioen sektorerako aurreikusitako xedapen zehatzetarako aldez aurretiko azterketa- eta kontsulta-prozedura mantentzea.

(3) Prozedura hori neurri baliagarria da estatu kideen eta Batzordearen arteko lankidetzaren estua erdiesteko, modu horretara Trataturia helburuak gauzatzeko baitituzte, eta etorkizunean estatu kideen garraio-politiken garapena dibergentea ez izatea lortzeko baitute.

(4) Bestalde, prozedura hori lagungarri gertatzen da garraio-politika bateratuak pixkanaka aplikatzeko.

HONAKO ERABAKI HAU HARTU DUTE:

1. artikulua

Estatu kide batek trenbideko, errepideko edo itsasoko garraioaren esparruan lege-, erregelamendu- edo administrazio-xedapenak hartzeko asmoa izanez gero, eta xedapen horiek garraio-politika bateratua eragin dezaketenean, bere asmoen berri idatziz eta behar bezainbesteko aurrerapenaz eman behar dio Batzordeari. Horrez gain, gainerako estatu kideei ere eman behar die bere asmoen berri.

2. artikulua

1. Lehenengo artikuluan aipatzen den jakinarazpena jaso eta bi hilabeteko epean, Batzordeak irizpen edo gomendio bat helaraziko dio estatu kideari, eta gainerako estatu kideei ere emango die horren berri.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

2. Estatu kide bakoitzak aipatutako ezarpen horiei buruzko oharra aurkeztu ahal izango dizkio Batzordeari, eta ohar horien berri eman beharko die gainerako estatu kideei ere.

3. Estatu kide batek hala eskatuz gero, edo Batzordeak egoki iritziz gero, Batzordeak berak irizpen horiei buruzko kontsulta egin ahal izango die estatu kide guztiei. Laugarren paragrafoan aurreikusitako kasuan, kontsulta hori *a posteriori* egingo da, bi hilabeteko epean.

4. Estatu kideak ahal eskatuz gero, eta harekin akordio bat lortuz gero, Batzordeak 1. paragrafoan xedatutako epea labur edo luza dezake. Estatu kideak hartu behar dituen ezarpenak presazkoak direla adieraziz gero, epe hori hamabost egunera laburtuko da. Epea luzatu edo laburtuz gero, Batzordeak aldaketa horren berri emango die estatu kideei.

5. Estatu kideak 1. paragrafoan edo 4. paragrafoan aurreikusitako epea amaitutakoan edo Batzordeak bere irizpena edo gomendioa jakinarazitakoan aplikatu ahal izango ditu xedapen horiek. Salbuespenak izango dira estatu kideen berehalako esku-hartzea eskatzen duten presa handiko kasuak. Kasu horietan estatu kideak berehala jakinaraziko dio Batzordeari, eta artikuluan honetan aurreikusitako prozedura *a posteriori* gauzatuko da, informazioa jasotzen den unetik bi hilabeteko epean.

3. artikulua

Indargabetu egiten da, I. eranskinean adierazitako egintzak aldatuta, Kontseiluak 1962ko martxoaren 21ean hartutako Erabakia, estatu kideek garraio-sektorerako aurreikusitako lege-, erregelamendu- eta administrazio-xedapen batzuetarako ezarritako alde aurretiko azterketa- eta kontsulta-prozedura ezartzen duena.

Indargabetutako Erabakiari egindako erreferentziak Erabaki honi egindakotzat hartuko dira, eta II. eranskinean jasotako korrespondentzia-taulari jarraiki irakurriko dira.

4. artikulua

Erabaki honen hartzaileak estatu kideak dira.

Estrasburgon emana, 2009ko apirilaren 22an.

Europako Parlamentuaren izenean
Presidentea
H.-G. PÖTTERING

Kontseiluaren izenean
Presidentea
P. NEČAS

[1] C 324 EO, 2006.12.30ekoa, 36. or.

[2] Europako Parlamentuaren Irizpena, 2006ko abenduaren 14koa (C 317 EO, 2006.12.23koa, 598. or.), eta Kontseiluaren Erabakia, 2009ko martxoaren 23koa.

[3] 23 EO, 1962.4.3koa, 720/62 or.

[4] Ikus I. eranskina.

ANEXO I

Decisión derogada y su modificación

(mencionadas en el artículo 3)

Decisión del Consejo, de 21 de marzo de 1962, por la que se establece un procedimiento de examen y consulta previos para determinadas disposiciones legales, reglamentarias o administrativas previstas por los Estados miembros en el sector de los transportes (DO 23 de 3.4.1962, p. 720/62)

Decisión 73/402/CEE (DO L 347 de 17.12.1973, p. 48)

ANEXO II

Tabla de correspondencias

Decisión del Consejo, de 21 de marzo de 1962, por la que se establece un procedimiento de examen y consulta previos para determinadas disposiciones legales, reglamentarias o administrativas previstas por los Estados miembros en el sector de los transportes	Presente Decisión
Artículos 1 y 2	Artículos 1 y 2
—	Artículo 3
Artículo 3	Artículo 4
—	Anexo I
—	Anexo II